



BILBOKO
HEZKUNTZA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
DE BILBAO

Gradu Amaierako Lana

..... HEZKUNTZAKO GRADUA

20.../20... ikasturtea

LANAREN IZENBURUA

Egilea:

Zuzendaria:

Leioan, 20...(e)koaren(e)(a)n

AURKIBIDEA¹

**(AURKIBIDEA LAN MODALITATEAREN ARABERA EGOKITUKO DA.
IKUSITXANTILOIARI ERANTSITAKO TAULA)**

Sarrera	X
1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala: aurrekariak eta egungo egoera	X
1.1. Aurrekariak: XX. mendea	X
2. Metodologia	X
3. Lanaren garapena	X
4. Emaitzak eta ondorioak	X
5. Printzipio eta balio demokratikoei eta Garapen Jasangarriko Helburuei jarraituz eginiko gogoeta.....	X
6. Etika profesionala eta datuen babesa.....	X
7. Erreferentzia bibliografikoak	X

ERANSKINAK (halakorik egonez gero. Addi-ra igotzeko beste dokumentu batean bilduko dira)

Eranskina. Profesionaltasun etikoko adierazpena

Eranskina. XXXXXXXXXXXXXXX

Eranskina. XXXXXXXXXXXXXXX

Eranskina. XXXXXXXXXXXXXXX

Eranskina. XXXXXXXXXXXXXXX

¹ Aurkibidea zure GRALa errazago erabiltzea ahalbidetzen duen eskema da; bertan, barne hartzen dituen atal nagusi guztiak agertzen dira ordenatuta. Orriaren bi marjinen artean jartzen da, testuaren gorputza baino lehen eta azalaren ondoren. Ezkerraldean, izenburuak eta azpizenburuak jartzen dira, eta eskuinaldean, puntuekin bereizita, horietako bakoitzari dagokion orri zenbakia.

Horretarako, ertz gardenak dituen taula bat egin dezakezu, bi zutabekin eta GRALak dituen izenburuak adina lerroekin. Automatikoki ere egin dezakezu, Word 2007 prozesadoreak eskaintzen dizun prozedurari jarraituz (beranduago azalduko dizugu nola).

LANAREN IZENBURUA²

Azpizenburua (halakorik izanez gero)

Izena Abizena Abizena

UPV/EHU

Abstract-a GALaren laburpen bat da. Gutxi gorabehera 100 hitzetan, lanaren helburuak, metodoa, emaitzak eta ondorioak azaldu behar dira, egindako lanaren garrantzia azaltzen saiatuz. Lehenaldian idatzitako paragrafo bakarra izan ohi da, aipamenik, taularik edo koadrorik gabea. Bost hitz deskribatzaile edo gako jarri behar dira (zentratuta eta letra etzanez), lana errazago indexatzeko. Hezkuntzan espezializatutako thesaurus batetatik atera daitezke. Abstracteko testuak guztiz baliokidea izan behar du euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez/frantsesez. Testuaren gorputzerako aukeratutako letra mota eta tamaina bera erabiliz idatzi behar da, baina lerroarte soilarekin. GrALaren idazkera inklusiboa izan behar da, genero-ikuspegia bermatuz, batez ere pertsonen inguruko lana garatzen denean.

Curriculum, berrikuntza, hezkuntza eragile, multimedia, eskola

Erreferentziazko GIH

El Abstract es una síntesis del TFG. Unas 100 palabras resumen los objetivos, el método, los resultados y las conclusiones, tratando de transmitir la importancia y relevancia del trabajo desarrollado. Suele ser un único párrafo escrito en pasado, sin citas ni tablas o cuadros. Cinco descriptores o palabras claves - centradas y en cursiva- facilitan la indexación del trabajo. Se pueden extraer de un tesoro especializado en educación. El texto del Abstract debe ser idéntico en euskara, castellano e inglés/francés. Se escribe con el mismo tipo y tamaño de letra elegido para el cuerpo del texto, pero con espaciado sencillo. La escritura utilizada en la redacción del trabajo debe ser inclusiva, debe respetar la equidad de género, especialmente cuando se trata de trabajos centrados en personas.

Currículum, innovación, agente educativo, multimedia, escuela

ODS de referencia

The Abstract is a summary of the TFG. Around 100 words summarize the objectives, methods, results and conclusions, trying to explain the importance and relevance of the work performed. Usually it is a single paragraph written in the past, without quotes or charts or tables. Five descriptors or keywords -in the middle and italics- make easy the indexing work. They can be extracted from a specialized education thesaurus. The text of the abstract must be identical in basque, spanish and english/french. It is written with the same type and font

2 Argia (10-15 hitz baino gehiago ez), erakargarria eta esanguratsua izan behar du (GRALaren helburua eta ondorengo garapen espezifikoa sorrarazi duen galdera eragilea lotu behar ditu).

size chosen for the body text, but with single spacing. The wording of the TFG must be inclusive, ensuring a gender perspective, especially when developing work around people.

Curriculum, innovation, educational agent, multimedia, school

Reference SDG

Sarrera

Atal honetan GRALaren alderdi nagusiak garatu behar dira labur-labur, aurkezpen gisa (aurrerapena): aztertu nahi dena, gaiaren garrantziaren justifikazioa, aukeratutako GRAL motaren helburuak (ikerketa, berrikuntza, esku-hartzea edo jarduera ekintzaileak), erabiliko den metodologia eta aurreikus daitezkeen zenbait ondorio. Nolabait esateko, hemen gaia eta horren ondorengo garapena aurkeztu eta testuinguruan kokatu behar dira.

Argi idaztea komeni da, estilo egokiarekin, eta arrazoiketa modu ordenatuan eta logika erabiliz eginez. Egingo dugun ibilbidea aurrez esatean datza, baina GRAL osoko fase komunei norberaren edukia gehituz. Gure laneko planaren aurkezpen pertsonalizatua eta justifikatua da. Ez da zeregin erraza; horregatik, lan osoa amaitutakoan, berrikustea eta behin betiko idaztea komeni da.

Zure lana atalen eta azpiatalen arabera hobeto egituratu nahi izanez gero, izenburuak eta azpizenburuak erabil ditzakezu. Horretarako, formatua kopiatzeko brotxa erabiliz, formatu zehatza eta uniforme eman diezaiekezu. Gogoratu izenburuen eta azpizenburuen zenbakiak behetik goranzko ordenan egon behar dutela, eta letra lodiz idatzi behar direla. Ez da komeni azpimaila asko egitea. Izenburu guztien gainetik lerroarte bikoitza utzi behar da.

Aurrera jarraitu aurretik, 'Dokumentuaren mapa' izeneko egitea gomendatzen dizugu³. Mapa hau zure lan osoaren oinarritzko egitura

³ Word 2007k lana errazten dizu. Lehen izenbururako, aktibatu Hasi/1. izenburua; 1., 2., 3... zenbakidun izenburuetarako, Hasi/2. izenburua; 1.1., 1.2., 1.3... izenburuetarako, Hasi/3. izenburua; etab. Formatua kopiatzeko brotxa erabiliz, aplikatu iezaiezu dagokien formatua izenburu desberdinei.

izango da, eta dokumentuan erraz mugitzen lagunduko dizun hiperesteka gisa funtzionatuko du. Txantiloia honetan dagoeneko sartuta dago. Sartzen duzun edozein izenburuk berdin funtziona dezake. Horretarako, 'Hasi' fitxako formatua kopiatzeko brotxa erabiliz, maila bereko beste izenburu bati emandako formatua kopiatu eta izenburu berriari itsats diezaioketu. Dokumentuan idazten duzun bakoitzean, 'Dokumentuaren ikuspegia/mapa' aktibatuta eduki ezazu. Hala, zure pantailaren ezkerreko zutabearen agertuko diren izenburuetan eta azpizenburuetan sakatuta, erraz mugitu ahal izango zara testu osoan. Baliabide hori oso erabilgarria da, izan ere, aurkibidea⁴ automatikoki sortzeko aukera ematen du, sortzen ari zaren izenburuak eta azpizenburuak erabiliz. Dena den, zeregin hori azken egunetarako utz dezakezu.

1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala: aurrekariak eta egungo egoera

Atal hau GRALaren zati nagusia eta funtsezkoena da. Bere egitura eta edukia aukeratutako GRAL motaren, ikasle bakoitzaren diseinuaren eta zuzendariak emandako orientazioen arabera da. Ohikoa da hasierako egitura pixkanaka aldatzea, ikaslea GRALa egiten doan heinean.

Atal honetan, azterketaren helburua sakondu eta gaia testuinguruan zehatzago kokatu behar da. Aukeratutako gaiarekin zerikusia duten egileei, esperientzia esanguratsuei, aurrekariari, alderdi teorikoei, pedagogikoei, etabarrei egiten zaie erreferentzia. Eguneko GRALaren arautegiari jarraituz, ezinbestekoa da atal honetan gizartearen erronkak, balio demokratikoak eta garapen jasangarriaren ikuspegia txertatzea, Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH) kontuan izanik. Modu berean, hezkuntza formalarekin zerikusia duten lanetan, azken legedia izan behar da kontuan, hau da LOMLOE curriculumaren

⁴ Jarri kurtsoa aurkibidea sartu nahi duzun lekuan, eta aktibatu fitxa hau: Erreferentziak/Edukien aurkibidea/Txertatu edukien aurkibidea. Aldaketak sartzeko, aktiba ezazu 'Eguneratu aurkibidea' aukera.

irizpideak. Aukeratutako gaiarekin eta GRAL estiloarekin zerikusia duten egileen edo esperientzia esanguratsuen aurrekari teoriko-praktikoak sistematizatu (ordenatu) behar dira. Komenigarria da nabarmentzea gaia ez dagoela guztiz agortuta, eta zure lana ekarpen berri bat dela. Hau da zure GRAL proposamenaren berritasuna, garrantzia eta egokitasuna justifikatzeko eta nabarmentzeko leku egokia.

Konturatuko zinen moduan, atal honetan azterketaren helburua zehatzago definitzen da eta zure GRALa zuzenduko duten galdera nagusiak zehatzago idazten dira.

Lagungarria izango zaizu jakitea bereziki zaindu behar dituzula azalpenen argitasuna, emandako arrazoen kalitatea, gaiari eta/edo metodologiari emandako ikuspegi edo gerturatze originala, idazkera inklusiboa eta hizkuntzaren eta iturri akademikoen erabilera zehatza; izan ere, modu horretan zure GRALaren ondorengo faseak zehaztasun eta koherentzia handiagoarekin gauzatu ahal izango dituzu.

1.1.Aurrekariak: XX. mendea [azpizenburu eredu bat izan daiteke]

GRALak gutxi gorabehera 20-25 orrialde izango ditu, testua 1,5 puntuko lerroartearekin idatzita eta justifikatutako paragrafoekin. Letra mota Times New Roman, Arial edo Calibri izan daiteke (12 tamaina), eta paperak DIN A4 tamainakoa izan beharko du. Azalerako, Ikasle Gidan datorren eredu erabiliko da.

Ez erabili letra etzana gehiegi; testua errazago irakurtzea ahalbidetzen duenean bakarrik erabil ezazu. Letra lodia izenburuetarako eta azpizenburuetarako bakarrik erabil ezazu.

Lan akademiko batean, ohikoa da beste idazle batzuen aipamenak erabiltzea, gure pentsaerak aurrez egindako beste ekarpen batzuekin dituen antzekotasunak edo desadostasunak agerian uzteko. Aipamenak sartzeak arrazoiketa asko aberasten du, baina ebaki/itsatsi egin gabe eta plagiatu gabe egin behar da. Besteen pentsamenduak behar bezala

aipatzeak ekarpen horiek norberaren pentsamendutik bereiztea ahalbidetzen du, eta egindako irakurketen kalitatearen eta zure pentsamendua sintetizatzeko gaitasunaren adierazgarri da. Horrez gain, zure diskurtsoa eta arrazoiketa antolatzeke erabiltzen ari zaren azterketa eta sintesi prozesuen kalitatea ere islatzen du. Aipamena lau lerro baino gutxiagokoa bada, testuan bertan sartu ohi da, aipamenaren hasieran eta amaieran komatxoak jarrita. Ondorengo esaldian adibide bat ikus dezakezu. Freireren (1990, 22. or.) arabera, "kalearen alde batean egonik, inor ezin egon daiteke gero beste aldean, kalean zeharkatu ezean. Alde honetan banago, ezin irits naiteke hango aldera handik abiaturik, hemendik baizik". Ohartuko zinen moduan, erabiltzen den idazkera mota edozein dela ere, aipamenaren aurretik edo ondoren egilearen izena adierazi behar da beti (parentesi artean, argitalpenaren urtearekin eta aipamenari dagokion orrialde zenbakiarekin batera), interesa izan dezakeen edozein pertsonak kontsultatu ahal izan dezan⁵. Zure testuan sartutako aipamenak lau lerro baino gehiago baditu, lerroarte soilarekin idatzi behar da, testu nagusitik bereizitako paragrafo batean, eta testuarekiko lau zuriuneko koskarekin. Ez da komatxo artean jarri behar, eta letra txikiagoa erabili behar da, 11 tamainakoa:

Kalearen alde batean egonik, inor ezin egon daiteke gero beste aldean, kalean zeharkatu ezean. Alde honetan banago, ezin irits naiteke hango aldera handik abiaturik, hemendik baizik. Berdin gertatzen da errealitatearen ulerpen ez hain estu, ez hain zorrotzarekin ere. Hezigaiek –edonortzu direla ere- beren errealitate bereziari buruz dituzten ulerpen-mailak begirunez onartu behar ditugu. Haien askapenaren izenean gure ulerpena ezartzea askatasun-bide bezala irtenbide autoritarioa onartzea da. (Freire, 1990, 22. or.).

⁵ Zure pentsamendua eta besteena argi bereizte aldera, zenbait aditz erabil daitezke: esaten du, adierazten du, baieztatzen du, ziurtatzen du...; baita beste zenbait esatera ere: 'Freirek ideia hau nabarmentzen du: ...', 'bat gatoz Freirekin (1990, 22. or.) ...', 'Freirek (1990, 22. or.) defendatutako tesia aipatu nahi dugu, zehazki...?'

Obra hiru egilek idatzita badago, honela idatz daiteke, adibidez: 'Garcíak, Ruizek eta Pérezek (2001, 27. or.) diotenaren arabera...', edo 'Garcíak eta beste batzuek (2001, 27. or.) diotenaren arabera...', edo 'Garcíak et al. (2001, 27, or.) esaten dutenez...?'

Aipamen bat oso luzea bada eta zati batzuk bakarrik badira esanguratsuak, esaldi batzuk ken daitezke. Horretarako, aipamenean etenpuntuak jartzen dira, kako artean [...], bertan zati bat kendu dela adierazteko.

Erreferentzia guztiak, bai testuan bai oin oharretan egindakoak, erreferentzia bibliografikoetan aipatu beharko dira (zure GRALaren azken azpizenburua). Erreferentzia horiek APA arauari jarraituz idatziko dira (6. arg., 2009). Word 2007 testu prozesadoreak lan hori dezente errazten du. 'Erreferentziak' fitxan, 'APA Sixth' estiloa aktiba ezazu; hala, aipamenak egiten dituzun heinean, fitxategi bat sortu ahal izango duzu, erabiltzen ari zaren bibliografiarekin. Fitxategi orokor bat sortzen dela ikusiko duzu, baina sartutako edozein argitalpenetan klik eginez gero, eskuineko zutabera igaro ahal izango duzu. Hala, zerrenda laburrago bat egin ahal izango duzu erabilitako bibliografiarekin. Kurtsorea erabiliz, zure GRALeko erreferentzia bibliografikoen atalean sar dezakezu. Ikus dezakezunez, zuk fitxa bibliografikoa bete besterik ez duzu egin behar; programa arduratzen da bibliografia APA arauen (6. arg., 2009) arabera idazteaz.

2. Metodologia

Atal honetan datuak biltzeko eta aztertzeko erabilitako prozedura edo azterketa metodologia zehaztu behar da. Horrez gain, aukeraketa hori egin izanaren arrazoia ere azaldu beharko da. Metodologiak bat etorri behar du aukeratutako GRAL motarekin.

Zure GRALeko testuan, 'oin oharrak' sar ditzakezu, idatzitako testutik kanpo zerbait argitzeko. Komenigarriena orri oinean⁶ jartzea da, behetik goranzko ordenan zenbakituta, testu nagusiaren letra mota berarekin (baina 10 tamaina erabilita, 1,0 lerroartearekin eta justifikatuta).

⁶ Oin ohar hau Word 2007ko tresna barran 'Erreferentziak/Txertatu oin oharra' aukeratuta egin da.

3. Lanaren garapena

Hemen erabilitako prozedura zehatz-mehatz adierazi behar da. Aukeratutako lagina eta bildutako datuei emandako tratamendua (kualitatiboa, kuantitatiboa edo mistoa) justifikatu behar dira.

Ezin dugu ahaztu, testu bat idaztean akats ortografikoak egiten ditugula; akats horiek hautematen diren heinean zuzentzea komeni da, amaierarako utzi gabe. Akats ortografiko bat dagoenean hitza gorritz azpimarratuta agertzen dela ikusiko duzu. Akatsa zuzentzeko, jarri kurtsorea hitz horren gainean eta, eskuineko botoia sakatuz, aukeratu dagokion ortografia. Alabaina, aukera hori aktibatzeko, lehenengo sakatu 'Berrikusi/Ortografia eta gramatika', eta aukeratu erabili nahi duzun hizkuntza. Aukera hori dokumentu berean beste hizkuntza batean idatzitako paragrafoak zuzentzeko ere erabil daiteke (adibidez, ingelesez, euskaraz edo gaztelaniaz...). Horretarako, aipamena bera aukeratu eta dagokion hizkuntzako zuzentzaile ortografikoa aplikatu behar zaio.

Hitz bat askotan errepikatzen dela ikusiz gero, jar ezazu kurtsorea hitzaren gainean eta saia zaitez sinonimoren batekin ordeztzen ('Berrikusi/Sinonimoak' fitxa).

Testu batean, akats ortografikoez gain, akats tipografikoak ere egon daitezke. Horiek saihestu egin behar dira, testua errazago irakurtzeko eta ulertzeko. Kontuan izan arau hauek:


- Hitz baten ondoren koma, puntua, puntu eta koma, bi puntu, hiru puntu, etab. erabili behar izanez gero, beti aurreko hitzari itsatsita idatzi behar dira.
- Puntuaren, komaren, puntu eta komaren edo bi punturen ondoren, zuriune bat utzi behar da beti.
- Puntuaren ondoren letra larriz idatzi behar da.
- Izenbururen bati zenbakia jarritz gero, puntua jarri behar zaio, eta, beraz, ondoren zuriune bat utzi behar da. Adibide honetan ikus

daitekeen moduan, izenburuko azken hitzaren ondoren ez da punturik jartzen (**3. Lanaren garapena**).

Testuan sartzen den edozein irudik argazki oina izan behar du. Bertan, irudikatutakoa azaldu beharko da, labur-labur. Irudiak ez dira apaingarri soilak. Alderantziz, gai bat ulertzeko oso argigarriak izan daitezke. Testuan bertan irudia aipatzea komeni da, '(1. irudia)' jarrita, irudiaren kokapena aldatu egin baitaiteke testu prozesadorearen edo bertsioaren arabera. Argazki oina idazteko, egin klik testuan sartutako irudian, eta aukeratu 'Txertatu epigrafea' ikonoa tresna barrako 'Erreferentziak' fitxan.

1. Irudia

Uraren zikloaren eskema



Gainerako irudietarako prozedura hori erabiliz gero, irudi guztietako zenbakiak automatikoki agertuko zaizkizu.

2. Irudia

Bilboko Irakasleen Eskola (2011)




Ikus dezakezunez, argazki oina testuan erabilitako letra mota berarekin dago idatzita, baina letra etzanez eta 9 tamaina erabilia.

Taulak eta grafikoak oso erabilgarriak dira informazioa laburtzeko eta ikuspegi orokor bat emateko, baina ez da komeni taula eta grafiko gehiegi erabiltzea. Beharrezkoena bakarrik aipatu, eta kendu jakina den informazioa edo helarazi beharreko mezua okertu dezakeen zarata bisuala. Erabili taulak (edo koadroak) zenbaki bidezko datuak edo testu motzak jartzeko. Grafikoek (histograma, sektore diagrama, lerro diagrama, etab.), aldiz, zenbaki eskala bereko datuak konparatu ahal izateko aurkezpen bisual bat egitea ahalbidetuko dizute.

Irudiek, taulek edo grafikoek zenbakiak izan behar dituzte beti, behetik gorantz ordenatuta, eta kasu bakoitzari dagokion legenda argigarriarekin. Oineko testua idazteko prozedura irudietarako erabilitako bera da. Kasu hauetan, 'irudia' hitzaren ordean, 'Epigrafe berria/Grafikoa' edo 'Epigrafe berria/Taula' aukeratu beharko duzu.

1. Grafikoa

Biztanleriaren glukosa mailak, 1825eko irailean.



Irudien kasuan bezala, testu nagusian grafikoari edo taulari erreferentzia egingo zaio, irudikatzen duena azalduz. Hala, grafikoaren edo taularen esanahia benetan adierazi nahi duen horretara bidera dezakezu. Hala egin ezean, testu idatziarekin zerikusirik ez duen elementu apaingarri bihurtzen da. Zure diskurtsoa hobeto ulertzea ahalbidetzen badu sar ezazu, bestela ez.

OHAR GARRANTZITSUA: Lana **gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea, berrikuntza didaktikoa edo ekintzailtza** bada, kontuan hartu behar da lan mota horiek inplementatu egin daitezkeela edo ez, baina, hala ez bada, aditu bati edo gehiagori galdetu beharko zaio tresnaren baliozkotasuna aztertzeke egiten den esku-hartze/berrikuntza edo ekintzailtzaren proposamenari buruz.

Atal honetan, aukeratutako estatistika edo interpretazio teknikak aplikatzean lortutako emaitzak adierazi behar dira. Informazioa lortutako emaitzak orokorrean edo zehatz-mehatz ulertzea ahalbidetzen duten grafikoetan, tauletan edo koadroetan antola edo sistematiza daiteke. Hizkuntza zuzena, argia, zehatza eta aukeratutako gaiari ondo dagokiona erabiltzea komeni da.

4. Ondorioak

Atal honetan ondorioak ere aipatuz gero (aparte eman daitezke, emaitza orokorragoetatik bereizteko), GRALaren hasieran finkatutako emaitza (edo emaitzak) zenbateraino lortu dugun hausnartuko dugu, baita egindako lana sorrarazi duen galdera eragileari erantzun diogun ere. Funtsean, landutako gaiaren eta horretarako jarraitutako prozesuaren alderdi nagusiei buruzko hausnarketa antolatu bat egingo dugu.

Amaierako gogoeta edo eztabaida egiterakoan, atal teorikoan jasotako paradigmak berrikusi behar dira, GrALean lortutako emaitzetan oinarrituz, balio demokratiko, berdintasun eta aniztasunarekiko errespetua eta/edo irisgarritasun unibertsalari buruzko hausnarketa pertsonala garatzeko. Azkenik, etorkizuneko ikerketen, esku-hartzeen, berrikuntzen edo ekintzen helburu izan daitezkeen beste lan batzuk proposatzea eta arrazoitzea komeni da.

5. Printzipio eta balio demokratikoei eta Garapen Jasangarriko Helburuei jarraituz eginiko gogoeta

Gogoeta horrek aztertuko du GRALak balio horiekin eta JGHek osatzen duten lan esparruarekin duen lotura, eta/edo horiekiko ikuspegi kritikoak pantea ditzake. Gogoetak arreta berezia jarri ahal izango die honako hauei:

- Giza eskubideen eta oinarrizko eskubideen errespetua, baita balio demokratukoena ere.
- Genero-berdintasuna eta tratu-berdintasunaren errespetua, eta inor ez diskriminatzea, arrazoia edozein delarik ere: jaiotza, jarorri nazional edo etnikoa, erlijioa, sinesmena edo iritzia, adina, desgaitasuna, sexu-orientazioa, gaixotasuna egoera sozioekonomikoa edo beste edozein ezaugarri edo inguruabar pertsonal edo sozial.
- Irisgarritasun unibertsalaren eta pertsona guztientzako diseinuaren printzipioaren errespetua.
- Jasangarritasunaren eta aldaketa klimatikoa tratatzeko era.

6. Erreferentzia bibliografikoak

Atal honetan, erabilitako material bibliografiko guztia aipatu behar da (orri oinetarako erabilitakoa barne), ordena alfabetikoan, egilearen (edo egileen) abizenaren arabera edo lana argitaratu duten instituzioen edo erakundeen izenaren arabera. Egile bakarraren hainbat argitalpen aipatu behar izanez gero, ordena kronologikoan agertuko dira (berrienetik zaharrenera). Urte bereko argitalpenei letra bat gehituko zaie, esaterako: 1987a, 1987b, 1987c, etab.. Word programak errez ordenatzen ditu bibliografiako paragrafoak tresna barrako 'Hasera/AZ ikonoa' erabiliz gero. Liburuen, aldizkarien edo web orrialdeen izenburuak beti letra etzanez idazten dira. Online bibliografiaren

kasuan, kontsulta eguna eta helbide elektronikoa gehitu behar dira. Ikus dezagun adibide bat:

- Freire, P. (1990). *Irakurtzeko egintzaren garrantzia elkar osatzen duten hiru idazkietan*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- García, M. eta Andreu, S. (2003). Las investigadoras científicas: Análisis sociológico del campo científico desde la perspectiva de género. *Revista Complutense de Educación*, 14, 337-360.
- Hernández, F. eta Ventura, M. (1998a). *La organización del currículum y proyectos de trabajo. Es un caleidoscopio*. Bartzelona: ICE-Grao.
- Hernández, F. eta Ventura, M. (1998b). *Los proyectos de Trabajo una forma de organizar los conocimientos escolares*. Bartzelona: ICE-Grao, 2011-06-03an hartua, hemendik:
http://redescolar.ilce.edu.mx/redescolar/biblioteca/articulos/pdf/los_proyectos_de_trabajo.pdf
- Saéz Carreras, J. (1997). La construcción de la pedagogía social: algunas vías de aproximación. In, A. Petrus (coordinador), *Pedagogía Social* (40-67 orr.). Bartzelona: Ariel Educación.
- Thompson, A. eta Crompton, H. (2010). ¿Están las TIC acabando con las habilidades necesarias para el pensamiento crítico? *Portal educativo Eduteka*, 2013-11-24an hartuta, hemendik:
<http://www.eduteka.org/modulos/6/134/1153/1>

ERANSKINAK

(Gogoratu!, ADDI-ra igotzeko beste dokumentu batean bildu beharko dira)

I. Eranskina: Etika profesionala eta datuen babesa

Ikasleak lanaren objektuaren babesa eta konfidentzialtasuna jarraitutako prozedura azalduko du.

Etika profesionala. Edozein modalitateko GrALa planteatu arren, ikasleak beti errespetatuko ditu etika profesionalaren printzipioak, ondorengoak bereziki aintzat hartuko direlarik:

Giza Eskubideak errespetatzeko printzipioa. Ikasleak beti jardungo du oinarrizko eskubideen esparruan eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean enuntziatutako eskubideen arabera.

Ekintza subjektuak errespetatzeko printzipioa. Ikasleak, lanaren objektua denen/direnen interesak lehenetsiko ditu, bere/haien autonomia eta askatasuna errespetatuko dituelarik.

Informazio arduratsuaren printzipioa. Ikasleak, lan egiten duen pertsonen inguruan zuzenean edo zeharka eskuratutako informazioei dagokienez, konfidentzialtasuna errespetatuko du. Behar izanez gero, informazioa partekatu behar denean, pertsona, talde edo komunitatearen onerako egingo da beti, eta oinarri etikoetan eta legezko arauetan oinarriturik, interesdunen ezagutza bermatuko delarik.

Datuen babesa. Datu pertsonalik zuzenean jaso behar direnean, bereziki arrisku fisiko, psikologiko edo sozialei loturiko datuak edo datu

sentiberak badira, *subjektuaren baimen informatuaren* prozesuari buruzko jakintzaz gainera, konfidentziasun eta datuen babeserako jarraibideak aplikatuko dira.

Gainera, **NAHITAEZ** [Profesionaltasun etikoko adierazpena \(DOCX, 16 KB\)](#) eranskin gisa txertatu beharko da lanean.

Halaber, UPV/EHUⁿ GRALak egin eta defendatzeari buruzko Erregelamenduaren 9. Artikuluari jarraituz:

- I. Gizakiekin, haien datuekin eta laginekin ikerketa-jardueraren bat egitea eskatzen duten lanen kasuan, tutoreak, lana mota horretakoa dela behin identifikatuta, ikasleari lagunduko dio baloratzen ondorio etikoen garrantzia eta azladuko dio nola bete lan akademikoetarako indarrean dauden jarraibide espezifikoak UPV/EHUren ikerketa eta irakaskuntzaren arloko Etika Batzordearen webgunean argitaratuak..
- II. Aipatutako kasu horietan, UPV/EHUren ikerketa eta irakaskuntzaren arloko Etika Batzordearen jarraibideetan aipatzen diren dokumentuak aurkeztu beharko ditu ikasleak, GRALa defendatzeko gainerako dokumentuekin batera. Alderdi hori arreta bereziz gainbegiratu beharko du tutoreak
- III. Egindako beste jarduera akademiko batzuetatik (praktikak, etab.) eratorritako informazioa bigarren mailan erabiltzen duten lanen kasuan, 8. Artikuluan xedatutakoa bete beharko da informazioa anonimoa izan dadin eta inplikaturako pertsonak eingo direla identifikatu bermatzeko, baina ez da aurkeztu beharko dokumentu gehiago. Hala ere, GRALean zehazki aipatu beharko da informazio iturria bai eta zer egin den anonimotasuna bermatzeko ere. Alderdi horiek arreta bereziz gainbegiratu beharko ditu tutoreak.

II. Eranskina: Bestelako eranskinak

Gainera, aukera gisa GRAL-a hobeto ulertzeko erantsi beharreko alderdi guztiak sartu daitezke.

Eranskin bat baino gehiago gehituz gero, orrialde desberdinetan aurkeztuko dira, horien ulermena erraztuko duten izenburu sinpleak eta txikienetik handienera ordenatutako zenbakiak jarrita.

Testu nagusian erreferentzia egingo zaie, dagokien lekuan.